

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

2024ko ekitaldirako aurrekontu orokorrean egitaratzeko udal araudiaren VI. eranskinean, etxeko konpostajeagatiko laguntzen deialdia azaltzen da

BDNS (Identif.): 751354.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/751354>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradunak izango dira Barrundiako Udalak hondakin solidoak biltzeagatiko udal-tasari dagokion ordainagiriaren titular guztiak.

Bigarrena. Diru-laguntza ematearen xedea

Etxeko konpostajeagatiko diru-laguntzak jasotzeko baldintzak arautzea, hondakinak behar bezala kudeatzeko, materia organikoa bereiztea eta konpostaje bihurtzea praktikan jarriz.

Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak

Udalbatzak, 2023ko abenduaren 28an egindako batzarrean, etxeko konpostajeagatiko diru-laguntzak emateko oinarriak onartu zituen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.barrundia.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kopuru osoa: 3.000,00 euro.

Aurrekontu partida: 1621.481.014.

Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea

Dokumentazioa aurkezteko epea 2024ko ekainaren 15era arte izango da.

Ozaeta, 2024ko apirilaren 8a

Alkate-udalburua

IGOR MEDINA ISASA